

2006ko BAZKIDEEN OHIKO BATZARRA

Joan den martxoaren 28an, asteazkena, Batzarra egin zen Penyaren egoitzan; 19 bazkide bertaratu ziren. Hainbat gai edo puntu jorratu ziren, gai zerrendan sartutakoak hain zuzen ere; iazko urtealdiari buruzko txosten bat aurkeztu zen ikus-entzunezko euskarrian eta burututako jardueren berri eman zen.

Bestalde, José Alcalde Euskobarça Penyaren Ohorezko Lehendakari izendatu zuen batzarrak aho batez, penyaren zuzendaritzan, lehen egunetik, eman dituen 15 urtetik gorako aldi honetan egindako lan eta ahaleginagatik esker ona emateko. Laster egingo den ekitaldi batean emango zaio dagokion sari xumea.

Halaber, 2006 urteko balantzea eta kontu egoera aho batez onartu ziren. Jarraian penyaren lehendakari berria aukeratzeko unea heldu zen. Gorka Muñoz Rojoren hautagaitza baino ez zen aurkeztu eta, hortaz, lehendakari aldarrikatu zuten, 4 urteko iraupena izango duen hurrengo agintaldirako. Penyaren egotzako lokaletan erreforma egiteko plana aztertzen hasiko da, eta horretarako kide guztien laguntza eskatzen da.

Datorren 2007-2008 urtealdirako aurkeztu ziren egitasmo berrien artean, besteak beste penyako lokalaren erreforma jorratu zen; izan ere, egoitza egokitzen saiatuko gara, 10 urte baino gehiago pasatu baitira lehen moldaketa egin genuenetik, eta harrezkero pintatu besterik ez dugu egin; beraz, lan horri ekiteko une egokia delakoan gaude.

Beste egitasmoetako bat 2008ko INAUTERIETARAKO Euskobarça penyaren karroza bat antolatzea da, gure hirian ateratzen diren gainontzekoen arteko bat. Proiektu honen bitartez keinu bat egin nahi diogu Gasteizko gizarteari, gure hiriak beste modu batean ikus gaitzan, gure penya futbol-zaletasunaz aparteko beste esparru batzuekin lotzeko, eta batez ere Euskobarçaren familia guztia ezagutzeko. Penyako kideen sendiak eta lagunak inplikatu nahi genituzke, eta horrela beste eskaintza bat egin ahal izango diogu penyari eta bere bazkideei. Datozen Inauteriak 2008ko otsailean izango diren arren, lan handiko prozesua izan ohi da; adibidez, mozorroak urrian eskatu behar izaten dira, eta entseguak azaro, abendu eta urtarrilean egin behar dira. Gainera, Udalarekiko izapideak azaroan burutu behar dira ezinbestean... Oso pozgarria litzateke batez ere haurrek eta, zergatik ez nagusiok, ekimen honetan parte hartuko bagenu, neuretzat oso erakargarria izan baita eta festa bat, inauteriak kasu, bizitzeko bestelako era bat delako. Jaietan Blusa talde batean edota San Prudentzioko danborradan parte hartzea bezain zirraragarria. Beraz, zabaldu ideia ezagunen artean..

Galde-eskeen tartean, Lluís Carrerasi, F.C. Barcelonako jokalaria ohi eta gaur egun Alavesen dabilenari, iraina ordaintzeko ekitaldi bat egiteko eskaera egin zuten; zuzendaritza talde berriak bere egin zuen proposamena eta dei egin zien bazkideei ahalik eta jende gehienak parte har dezan, ez luke eta zentzurik izango ekitaldi horrek penyakideen esku hartzerik gabe.

Eta besterik gabe, 20:55ean bukaera eman zitzaion batzarrari.

BI HILABETEKO INFORMAZIO ALDIZKARIA – 84. zenb. 2007ko apirila - maiatza
PENYA EUSKOBARÇAren informazio aldizkaria



P.B. VITORIA-GASTEIZ EUSKOBARÇA
Uruguai k., 7- 9 Behea TFNO/FAX: 945-242562
WEB: www.euskobarca.com Email: penya@euskobarca.com

Batzorde berria, Egitasmo berriak

2006ko Bazkideen Batzar Orokorra amaitu berritan, Penyaren lehendakaritzarako hautagaitza bakarra datozen lau urteetarako berriro hautatze aizan da gure Penyaren etorkizunerako gertakaririk garrantzitsuenak. Zoritxarrez edo zorionez, ez dakit bietatik zein, erakunde honen gidaritza izatearen ardura jarri duzue nire esku; zer esanik ez, ohore handia da hori niretzat, baina aldi berean etengabeko erantzukizun itzela da 15 urte luze hauetan denon artean hain ospetsua egin dugun erakunde honen buru izatea. Orain zailena geratzen da, hau da, egitasmo berriei heltzeko gauza izango den zuzendaritza batzordea osatu behar da, 15 urte hauetan gertatu den bezala, ohikeriari aurre egiteko.

Eta horren adibide garbia dugu Batzorde berriak batzarrean bere egin zuen proposamen haxe dugu: Lluís Carreras jokalaria iraina ordaintzeko ekitaldi antolatzea. Izan ere, denok dugu Carrerases bizi Alaves taldean bizi duen egoeraren berri. Gure gizatasunari eta gure bartzelonazale senari jarraituz, ezin dugu aukera galdu Carrerasi gure sostengua eta laguntza emateko, bertoko kluba eta batik bat bertoko sentimendua bahituta daukanaren tiraniaren aurrean. Espero dugu den-denok biltzea iraganean F.C. Barcelonako jokalaria izandako pertsona horri laguntzeko; ez alferrik pentsatzen du Carrerases can Barça “és més que un club”, izan ere 10 urte eman zituen “la Masia”n.

Bestalde, denboraldia bukatzeko falta diren bi hilabete hauetan aurreko urteetako garaipen eta emaitza onak errepikatze moduan gaude, baina horretarako jokalaria guztiak jokatze moduan eduki behar ditugu, eta baita zorte apur bat ere; ematen duenez, azken urteotan uda lasaiak bizi baditugu ere, datorrena gorabeheratsua izango da, fitxaketei dagokienez.

Hori, ordea, bestek upeleko sagardoa da, eta ziur gaude ekainaren bukaerako garaipenak Cavarekin ospatuko ditugula.

Gorka Muñoz
Euskobarça Vitoria-Gasteizko P.Bren lehendakaria

Real Sociedad – F.C. Barcelona

Partida honetara joatekotan bazaude, kontuan izan ezazu sarrerak eskuratzeko arazo asko egongo direla, beraz txartelak eskatzeko azken eguna apirilaren 20a izango dugu; hala ere, norgehiagokaren aurreko lau edo bost egun arte ez dugu jakingo zenbat eman dizkiguten, eta aurreikusten diren salneurriak ez dira, ez, batere merkeak izango... (60 euro gutxienez).

Donostiako Penyako gure lagunek bezperan ekitaldiren bat antolatuko dute; bertan klubaren zuzendaritzakoek esku hartuko dutenez, horietara ere joateko asmoa baldin baduzu, guri esan besterik ez duzu.

Lluís Carrerasen aldeko ekitaldia Maiatzaren 9a, asteazkena, 20:00etan

Aurreko Bazkide Batzarrean, Félix Resak Lluís Carreras F.C. Barcelonako jokalaria ohiari iraina ordaintzeko eta haren aldeko ekitaldi bat egite proposatu zuen; berau katalan guztien alde izatea pentsatu da, Alaves SADren akzioen %51ren oraingo jabeak egindako adierazpen larrietan jaso duten tratuatik.

Hori dela eta, ekintza sinboliko batean Lluís Carrerasen aldeko ekitaldi bat egiten ahaleginduko gara eta, bide batez, aukera aprobetxatuko dugu Masian 12 urtetik aurrera izan zen jokalaria batek talde blaugranaren harrobiaren sekretua emateko, bertako mutil askok lehen taldera iristea edo gehien-gehienek futboleko bizimodua ateratzea lortu baitute.

Hori horrela, ekitaldi interesgarria izan dadin saiatuko gara, izan ere, gure taldea Errege Kopako finalerako sailkatzeko prestakuntza izatea nahi dugu; ospakizuna Getafe eta Barçaren arteko Kopako partidaren aurretik izango da, maiatzaren 9an, asteazkenean, hain zuzen ere.

Hona hemen egitaraua:

Maiatzaren 9a, asteazkena

20:00etan:

LA MASIAri (Barçaren harrobia) buruzko mahaingurua, Lluís Carrerarekin)

21:00etan:

Lluís Carrerasen aldeko eta oroigarriak emateko ekitaldia

21:15etan:

Otordu xumea

Zehaztu gabeko orduan(?)

Getafe eta F.C. Barcelonaren arteko Errege Kopako finalerdietako itzuliko partida

ROBERTO BONANO jokalaria blaugrana ohi, mundu osoan itzal handikoa, ere gurekin izatea espero dugu.

Zuen zain gaude, jokalaria eta pertsona gisa zor zaion esker ona denon artean emateko. EKITALDI HAU BAZKIDE ETA LAGUNEI ZABALIK DAGO, beraz TOKIA BETETZEA espero dugu, aukerak merezi du eta.

EUSKOBARÇA - 2007ko KUOTA

Oraindik ere batzuek aurtengo kuota ordaindu ez dutenez gero, aldizkari honen bitartez eskatu nahi diegu sarrera lehenbailehen egin dezatela.

HELDUEN 2007ko KUOTA : 40 Euro

HAURREN 2007ko KUOTA : 6 Euro (16 urtez azpikoak)

Bigarren kidearentzako kuota familiarra: % 50 (Helbide berean bizi baldin badira)

Kontuak: LA CAIXA

2100 - 1930 - 24 - 0200006766

CAJA VITAL KUTXA

2097 - 0153 - 92 - 0008042129

Zuzendaritza Batzordeko kideak

2007-2010 aldirako Zuzendaritza Batzorde berrian sartzea pentsatzen ari bazara, hona hemen beste peña edo klub batzuetan dauden zenbait ardurak, gurean ere bete genitzakeenak. ANIMA ZAITEZ!!!!

IDAZKARIA	DIRUZAINA
AFARI ETA EKITALDI OFIZIALEN ARDURADUNA	BIDAIEN ARDURADUNA
“GENT DEL BARÇA”REN ARDURADUNA	LOTERIA ETA ZOZKETEN ARDURADUNA
ONDARE ETA INBERTSIOEN ARDURADUNA	WEB GUNEAREN ARDURADUNA
PEÑA ETA BARÇA REN MATERIALAREN ARDURADUNA	PRENTSA ETA KANPO HARREMANEN ARDURADUNA
ARGITALPENEN ARDURADUNA

Errege Koparen finala

Balizko Finalera joan nahi baduzu, eman izena Kopako finalerdietako joaneko eta itzuliko partidaren artean penyan jarriko den zerrendan. Epearen bukaera itzuliko partida amaitzearekin bat etorriko da.

Zorte ona denontzat eta ea Barçak bi titulu gehiago irabazten dituen aurten ere.

Euskobarçaren XV. Urteurrena YouTube-n

Batzarrean aurkeztu zen XV. Urteurrenari buruzko muntaia www.youtube.com bideo atarian eskegi dugu. Euskobarça hitza duten fitxategiak bilatu besterik ez duzue, eta erraz agertuko zaizue. Bi zatitan banatuta dago.